

GUGGENHEIM BILBAO

PRENTSA OHARRA

Bar Guggenheim Bilbao tabernan Juan Pérez Agirregoikoaren artelan bat aurkeztuko da

Donostiar Juan Pérez Agirregoikoaren pintura bat, akrilikoz eta ikatz-ziriz egindakoa eta 10 metro luze eta 4 metro zabalekoa, iraunkorki ipiniko da Bar Guggenheim Bilbao tabernan. 2014ko martxoan irekitako guneko horri arte-balioa gehituko zaio horrela.

Margolanaren izenburua *La forêt des maîtres-sots* da, eta ia osorik hartuko du tabernako goialdeko horma bat; guneko horretatik itsasadarrerako ikuspegi bikaina dago. Lan horretan artistak giza jokabidearen inguruko hausnarketa gauzatu du ikurrez eta politikaren eta filosofiaren alorreko osagaiez betetako gaueko baso batean.

“Basoak interesa piztu zidan, bertan irudimenezkoak biltzen baitira, loturak sortzen baitira. Era berean, interesa neukan gauean, iluntasunaren babesean, enbor batean honakoa irartzean: zitalek (*knaves*) leloak (*fools*) maite dituzte eta leloek ere zitalak maite dituzte”.

Juan Pérez Agirregoikoa (Donostia, 1963) arte ederren ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean eta filosofia ikasketak Paris VIII unibertsitatean; Parisen bizi da harrezkero. Diziplina asko landu ditu, besteak beste, marrazkigintza, pintura, animazioa, bideogintza, pankartak, ur-margoa eta argazkigintza. Behin eta berriro, proiektu bati ekitean, estilo zehatz batetik aldentzen da. *Instalazio bilakatutako proiektua (Proyecto convertido en instalación)*, orain arteko ikusizko proiektu handiena, Guggenheim Bilbao Bilduman dago 2007tik. Mundu osoko museo eta galerietan izan ditu lanak ikusgai, hala nola, Museo Reina Sofía, Anberesko MUHKAn, Gasteizko Artiumen, Madrilgo Casa Encendidan, São Pauloko MAMen eta Lyongo (Frantzia) eta São Pauloko (Brasil) bienaletan.

Arte-proiektu hau jartzeak Bar Guggenheim Bilbao tabernari arte-balioa gehituko dio; beste museo batzuetako taberna eta jatetxeek ere horrelakoak dituzte, esaterako, New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum-en Erresuma Batuko Liam Gillick artistaren lan bat dago, Düsseldorfeko K21 museoeko tabernan kubatar artista Jorge Pardoren artelan bat dago, eta horrek erreferente bihurtu du. Pérez Agirregoikoaren lana Guggenheim Bilbao Museoaren ikerketarako funtsei gehituko zaio, haren artapena ziurtatzeko.

Bar Guggenheim Bilbao tabernak bi solairu ditu, eta egunero dago irekita —astelehenetan izan ezik— 09:30etik 20:30era. Etxeko gozoak eskaintzen ditu gosaltzeko eta askaltzeko, bai eta entsaladak, ogitartekoak eta pintxoak. Uztailen eta abuztuan taberna eta terraza egunero, astelehenetan ere, zabalik egongo da, gainerako Museoko gunek moduan.

Bilbon, 2015eko maiatzaren 21ean